

DIRU-ITURRIAK

Proiektu edota enpresa gehienek xede nagusia dirua lortzea da, baina gure kasuan, hori ez da horrela, gure **xede nagusia bezeroen ongizatea**, konkretuki, pentsiodunen ongizatea lortzea delako. Horregatik, ekintzek izango duten prezioa ez da oso altua izango, **guztientzako eskuragarria** izatea baita gure helburua. Hala ere, gure kostuak ordaintzeko eta gure negozio ideia honekin bizi ahal izateko beharrezkoa dugun dirua lortzen saiatuko gara.

Gauzak horrela, gure diru iturriak bi bide nagusietatik etorriko dira: alde batetik, **udaletxeek eta egoitza pribatu eta publikoek** gure zerbitzua eskaininahi izango dute beraien inguruko pertsonentzat. Horrela, beraiek ordainduko dituzte zerbitzu hauek. Guk uste dugu hemendik jasoko ditugula diru iturri nagusienak.

Horretarako, udalekin eta egoitzekin bilduko ginategi hiruileko bakoitzaren hasieran, eta bertan haiekin **adostuko genuke** zein izango litzatekeen **aurrekontua** eta egingo liratekeen **ekintzak**.

Bilera horiek urtaro bakoitzaren hasieran egitea pentsatu dugu, eguraldiaren arabera, egin ahal ditugun ekintzak oso ezberdinak direlako, eta udalek edo egoitzek eskaintzen diguten **aurrekontuaren arabera jarduerak ugarituko** genituzke. Horien prezioak zehaztea oso zail ikusten dugu momentu honetan, **egoera bakoitzaren arabera prezio eta aurrekontuak oso aldakorrak** izango direlako.

Bestalde, **pertsona indibidualak** ere etor daitezke gure zerbitzuak eskatzera eta kontratatzerara. Pertsona indibidualentzako **tarifak** hurrengoak izango dira:

EKINTZA	PERTSONEZ OSATURIKO TALDEA	PREZIOA
Gitarra klaseak -Ordu bateko klasea -2 klase astero, hilabete bat -8 ordu klase	5-9	50€ hilabetea
	10-14	40€ hilabetea
	15-20	30€ hilabetea
Surf klaseak -2 orduko klase solteak	4-8	20€ klasea
	9-12	15€ klasea
Itsasaldia -3 ordu	10-14	20€
	15-20	15€
Paddle sup -2 orduko ibilaldia -Tarifa baxua (elkarte honen xedea mugikortasun murriztua duen jendea laguntzea baita)	5-9	8€
	10-15	5€
Dantza klaseak -Ordu bateko klasea -2 klase astero, hilabete bat -8 ordu klase	5-9	30€
	10-15	35€
Begotxu jatetxearen barne funtzionamendua ezagutu	-	DOHAIN (jatearekin nahiko)
Bidaia Benidormera -6 eguneko egonaldia -Hotela (mantenu oso) eta autobusa barne	10-24	200€
	25-40	180€

Hemen, gutxi gora behera, gure **salneurriak** adierazi ditugu, baina **uneoro jarduera berriak** egingo ditugunez, jarduera gehiago sortu ahala, salneurri berriak zehaztuko ditugu. Beraz, hauek, tarifa **adierazgarriak** izango lirateke. Baina dena **bezero kopuruaren, urteko garaiaren** eta, jakina, **jardueraren araberakoa** izango da. Beraz, jarduera antolatu baino lehen prezio zehatz bat finkatzea ezinezkoa da.

Gure proiektua aurrera ateratzeko, hasiera batean, **bakoitzak 1.000 euroko inbertsioa** egingo genuke; hau da, **4.000** euro, **finantziazio oinarri** bat izateko eta gure hasierako kostuei aurre egin ahal izateko. Horretaz gain, **diru laguntza ezberdinak** eskatuko genituzke, bai [Bizkaiko foru aldundiari](#), bai udaletxe ezberdinei ere.

Gure zerbitzuak hasieran **Uribe Kostatik** zabalduko dira, hau da, Plentzia, Urduliz, Gorniz, Lemoiz, Berango, Sopela, eta abar udalekin; gutxinaka beste herrietatik hedatzeko.